

ZAINZAILEA NAIZ ETA LAGUNTZA BEHAR DUT

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Herritar guztiak > Zaintzailea naiz

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Mendekotasuna duten pertsonen **familia zaintzailea**.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Zaintzailearen erroldatzea.

Zaintzarako **laguntza beharra**.

Zertan datza?

Zerbitzu honek mendekotasuna duten pertsonen familia zaintzaileei zaintzarako eta beren burua zaintzeko ezagutzak eta trebetasunak eskuratzeko aukera ematen die.

Horrela, zaintzailearen bizi-kalitatea eta eskaintzen dituen zainketen kalitatea hobetu nahi dira.

Norentzat?

Mendekotasuna duten pertsonen **zaintzaileak**, familiakoak izan edo ez, eta zaintzaile nagusiak izan edo ez. Zaintzaile nagusiak **eskaera egiten den udalerrian egon behar du erroldatuta**.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)